

ERKALAREN ALDEKO EKINTZA ERRIZALEA



SORTZE-AGIRIA
TA
IRAKASALDI NAGUSIENAK

1959'ko Uztaillean

SORTZE-AGIRIA

¡ ESPAÑARROK !

Gure errialdean nagusi dan politiku-aginpidea erriaren erabateko naiaren aurka ezarri zan, odolaren odolez, eta iraun ere, erriak nai ez-ta, indarraren indarrez irauten du, inoizkorik aldi lotsagarrienetan Españi ondaturik.

Ditadura ezarteko erabili zituzten eta erabilten dituzten lengo demokraziaren ziralazko utsuneek eta makurkeriek ezin dezakete bere burua garbitu : ta irakasbide bezela iaurti zituzten « bai » biribilak ezin dira zutik ibili inolaere, inoren ustean. Zerabilten asmoa itxuraz zindoa izan zitekean; geroak, ordea, gordin eta gogor auxe erakutsi du, io-muga biurri ta zikinak estaltzen zituen mozorro utsa besterik etzala zalako asmo ura, alegia.

Ageri-agerian dago iauntxokeri orren ekonomipolitikak osoosoan porrot egin duena : ustez ez usteko zabarkeria ta ardurabagekeria nagusi bait-da. Ondorengo ondorez, bear gorria ta eza galgarria ara ta ona dabilta egungo eguneko Españian luze bezain zabal. Ikuskizun negargarria, benetan ! Gure errialdea lantegiz ugariagotzeko prankotarrek zekarten asmoa, berez gorgarri gerta zitekean : besterik gertatu da, ordea, egin-eginean. Ondo asmatutako egin-gogo egokia izan bearrean, ustez ez usteko bonbonkeri gertatu da. Azalez izen oneko kezka bezela agertzen da, baina, ekonomi osoa lur-io erazi du bonbonkeri orrek egin-eginean, eta irabazpide nabarmenak eta egiteko makurrenak eta zigorgarrienak babesean lotu ditu. Aberastasuna banatzean, gaingora doa berdintasun-ezik mingarriena, ageri-agerian dagoenez; onetara, erdiko-mailan bizi ziranak langileen mailako gertatzen dira, ta langile-nekazariak bearrik gorrienean ondatuaz doaz. Maila ta adar guzietan irakaskintza — erriaren itxaropena — ardurabagekeri andienean dago, gauza iakina danez. Uka-ezina auxe, gainera : errietako eginbide guzietan lapurkeria ta nabarmenkeria zabaltzen da : ekonomi-bizibidean nagusi egin da nabarmenkeria ta lapurreta, gorengo agintariek ematen dituzten erakusbide ustelek erakusten dutenez. Nabarmenkeria nagusi, arpegi andiz beren aldeko kutunek darabilte gure erria. Barneko ara-

zoetatik erri-artekoetara igaro ba'gintez, eguzkipeko errien artean Españi'k egiten duen utsaren urrena errez ezagunenezake : agin-dutako andikeririk andienak, txakur-ametsik zoroenak ezer ezean gertatu dira.

Españi'ko laterria geroago ta gain-beerago doala-ta, erritarrik geientsuenak, baita asieran prankotarren iauntxokeria on-ustean onartu zutenek berak ere barne diralarik, estu ta larri daude, inork ezpaitaki geroko geroan zer gerta ditekianik, onik ez beintzat. Gizaldi berrietako gazte talderik buru iantzienek eta auke-rakoenek, asarrearen asarrez ta biurrikeririk zindoenaz ezin dezakete onartu oraingo egoera, ta erria bide berrietan barna eraman nai izango luteke. Langile-nekazariei buruz auxe esan dezakegu : beren gain zerabilzkiten sindikatu iatorrak prankotarrek errukirik bage suntsitu-arren, eta legetik alde ezarri-arren, eta iauntxokeri-pekoko sindikatu « zuta » éta naastuen barnean otsein biurtzen zazpi aleginak egin-arren, berriz ta berriz an-emengo eskualdetan sortu diran oporrek auxe erakutsi dute eguzki-argia baino argiago : prankotarrek gertu dieten ioputza ezutela otzanik onesten, eta ori gorarik eta guren erakutsi diete gure langilleek eguzkipean iakin nai duten guziei.

Iakinean gaude bestalde — ta adigarri gertatzen zaigu — amaikatxo erritarrek iaurbide orren eza ta kalte larriak, baita orren iraupenak ere ekarri lekazkean galurren andiak ikusita, beste nolabaiteko iaurbidea ezarten lagundu nai izango lutekeana, baina, prankotarren etenbageko zabalkundeak eraginda ta zitalduta, ezer ezutena egiten, gure arteko gudu berriren baten beldurrez ta naspil aundiren bat ikusteko izu-ikaraz.

Oraintxe bertan, auxe egin bear dugu nai ta nai ez : atseginetan bizi ez diran guzien erabateko deadarra neurtu ta itzetan mamitu, alegia, gure itxaropenaren oinarri bait-da. Bizi geran une larriok auxe agintzen dute zorrotz ta motz, estu ta gogor : an-emenka sakabanaturik lerrenean diarduten indar guziak bateratu ta ubide-barneratu, alegia, alegin guziok ondorenik gorenekoena ekar dezaten. Alabaina, onetara gerta dedin, asian asi, io-muga zeatza erakutsi dezaiegun indar oiei. ACCION REPUBLICANA DEMOCRATICA edo ERREPUBLIKA'ren ALDEKO EKINTZA ERRIZALEA sortzean, agiri au izenpetzen dutenen io-muga ta xedea mugaturik ageri da Azalkizun eta Egitarauen Oinarriak deritzan eraskin geigarrian eta zenbait gizaldietako gizon lankideek bat-eginda ekarritakoa da, izan ere : ditadura sortzean erbestera io zuten gizonek

eta errian bertan etenbage oraintsu arte bizi izan diranek, alegia. Erri barnean ixilean lanean ari diran talde ugari ta bulartsuek ere bero ta sutsu izenpetzen dute agiri onen mamia.

Españi'n zabaldurik dagoen ioera zabala ta garrantzitsua mamitu ta adierazi uste dugu, ta gure burupideak gogoz onartzera ioten duten guziak gure asmoen inguruan bateratu nai izango genituke. Ori dala-ta, gure errialdeko bizibide errikoia biarko egunez zuzentzen legez ta erantzupidez lagunduko lukean alderdia izan nai genuke, oinarri zabaltzat erria arturik. ERREPUBLIKA'ren ALDEKO EKINTZA ERRIZALEA, izan ere, alderdi errepublikazalea da erabat, goitik beraino ta bere burua saldu ezineko Errepublikazalea, ain zuzen. Asmoz ta gogoz, edonon eta edonoiz, errepublikazaleak gera, baina, batez ere, Españi'an, izan ere. Bertan, legezko Erregetza deritzan iaurbidea ezar ba'ledi, nai ta nai ez agiriko bizibidean erritar-ioera atzeratuena ta gizartez galgarriena ta erriaren irabazpide nagusien aurkakoena nagusi izango bailirake. Ez gera agertzen erri-maila baten berebiziko onerako, Erri osoaren gorengo onerako lanean diarduken alderditzat baizik, eta ain zuzen, gizarteko demokraziaren aldeko, erritar demokrati iatorraren osogarririk bearrezkoena bait-da. Arrezkero, gure etsia auxe da, Españi'k ekonomi-egitama aldatu-bearra duela luze bezain zabal : ta gainera, ozen eta zoli auxe aldarri egiten dugu, ots, arlo nagusi onen bearra eztagoela buruz-buru ta mokoz-moko askatasun eta eskubide nagusien onak beretu bearraz. Zain eta muinez ustel gertatuko litzake, ordea, ortik atera litekean emengo irabaziari, eskubide aiekiko begirunerik zeatzenak dakarren gogozko ona elkargana ez ba'lezakio : au ere bai biribilez esaten dugu.

Alabaina, gure irrika egingarri dedin, eragozpen bakarra bein betiko gure bideetatik alde eragin bearra genuke, ots, alde-aurre porrokatu bearra genuke bertan dagoen iauntxokeria. Ona emen, gerokoarekiko gure kezkek zer dala-ta laguntzen duen oraingoaren eskea ta agindua. Bila ari geran elburuak auxe erakusten du, ez garabiltzala zor eta lor porrokatzeko zaletasun utsak, eraiki ta eragiteko gogoak baizik : oraingo naste-borrastea ta bidegabekeria kendu ta erria zorionera ta alkartasunera leramaken bidean ezarri bearra dugu, gizarte alkartasuneko arauetan erroak egin eta zuzen eta bidez egokieraziz.

Izan ere, badira egungo egunez Españi'n eta erbesteratuen artean gure asmoekin bat-datozten alderdientako ta langile-elkartasunetako asko ta asko. Gauberak dakarrenez, ordea, norik bere

ikuspegia du gure Erriko gorabera banak ebaztean. Oiekin ar-
emanean diardugu dagoneko, berealaxeko io-mugak irixteko nola
iokatu asmo batez erabaki dezagun, ta al baliz, neurriak artu bear
genitu, guziok lankide gaitezen, Españi'n ezarriko dan askatasun-
bidea zabal eta tinko daiteino, gure aleginak oro ontara baitatoz,
askotariko erri-iaurbidea ezartera, alegia.

Erri-zale baikera, oraingo egoera ontatik biurrikeririk bage
atera gaitezen, auteskundeetara iotea bide zuzentzat artzen dugu,
ortan eztagu, gaitz-egokirik iristen, ots, erritarrek eskubideak oro
iabetuz, bein-beineko Iaurlaritza bat buru izaki, berdinean alder-
dien indarrak nor-geiagoan ezar ditzala, bakoitzak bere autarkia
nori emateko bere buruaren iabetasuna izan dezan, argi ta garbi
erritarren gogoia ager dedin. Baiezko biribil orrek auxe adierazten
du gainera : bein eta herriz erriak zapuztu dituen Iaurbide zarrak
beste bideren batez lengoratzten inork ekingo ba'lio, orren aurka
zin-zinez ta kementsu iarriko ginakela, itzez soilik ez, baita gure
eskumeneko beste bide ere. Iarduera ori xuritzeko lerabilketen
legetiartasun-usteko argibidea ustel eta aizun deritzagu, erkaldar-
iaurbidea bait-da ordeko bakarra, erriak azkenengoz bere naia
adierazi zuenez.

Beste au ere, argi ta garbi, sendo ta tinko agertzen dugu :
abertzaletasunak beartuta daudenok, españarrak bere buruen iaun
eta iabe bake-bidez gertatzeko gure nai bizia ontzat artuta gogaide
ez ba'lira, beste zenzait bide erabilten beartuak geundeke. Bideok
zuzen eta bide, aizu ta zilegi lirake zapaltzailearen aurkako hurru-
kan. Españar-burubidearen antxinate gorengoak onartuak dauzka.
Noizbaiten Españi'n buru-iabetasuna lengoratzeko iardun zutenen
ibilpideak egokitzen darakus. Ta oraintsu, beste zenbait erriek
bideok erabili dituztela, ondore on egin dute ala bearrik, eta
geroan ezin zetisi dezakegun erakusbide eder biurtu zaizkigu.

¡ Erritarrok !

Amilburu-ertzetik onik ateraten dakiten erritar-ekinaldi go-
gorrak sorterazten ditu erri baten bizitzarteko larrialdi estuak.
Gure erriak bizitan iasaiten duen izu-ikarak eta lau-orriak okerra-
gorik ekar lezake, bideren batez len-bai-len ondu ezik. Auxe dugu,
beraz, gure egingoa oraingoan : Iaurbide lotsagarria bein betiko
ken lezakean erritar-ekintza antolatu, alegia. Bil eta biribil ezazue
erritar-ekintza, lengora ezazue Españi'n Errepublikara, orixe da gure
deia. Prankotarrek adierazten dutenaren aurkako ekinaldia asia
da, ta gogor, gainera; ta indarraren indarrez agintari diranak

iakinean daude, ez daudela sendorik, naiz ta besterik agertu arro-
keriz ta arrandiz.

¡ Adoretsu aurrera !

¡ ¡ Españi'arren !!

¡ ¡ Errepublikaren alde !!

1.959' gko. Uztaila

GIZALDI BERRIEN ETA FRANCO'REN BARNEKO AUR- KAKOEN IZENEAN :

« Nueva Generación Ibérica ». « Juan de Breña ». « Ibe-
rión ». « Antonio Laguna ». « Walter Spain ». M. Suarez, ikasle.

ARGELIA'n :

Joaquin Borja, ordelari. Jose Gampillo, margolari. José Cam-
pos, egunkalari. Gracian García, irakasle. José Chicharro Gamo,
irrudigile. Ricardo Mohedano, abere-sendatzaile. José Pérez Doldan,
irakasle. José Serrano, sendagile. Enrique Silvestre, ordelari.

ARGENTINA'n :

Rafael Alarcón, urrutidazkindari, Instituto Politekniko His-
pano-Argentino'ko zuzendari. José Maria Azarola, inkenieru.
Augusto Barcia, lege-gizon eta idazle. Carlos P. Carranza, lege-
gizon eta idazle. Vicente Costales, lantegi-nagusi. Carlos de Labra,
lantegi-nagusi. Claudio Sánchez Albornoz, irakaslari ta idazle.

BRASIL'en :

Antonio Pico Skoda, inkenieru.

CUBA'n :

Antonio Ortega, irakasle ta egunkalari. Antonio Palacios,
antzezleri. Jesús Vázquez Gayoso, irakasle ta arrotzekiko ordezlari.

TXILE'n :

Tomás Balaguer, etxagile. Sigfrido Blasco-Ibáñez, idazti-salt-
zaile. Federico Casamayor, lantegiko nagusi. Modesto González,
langile. Antonio de Lezama, idazle. Antonio Narvarte, lantegiko
nagusi. Ovidio Oltra, lege-gizon.

GOI-AMERIKETAKO ERRI-ELKARTUETAN :

José Asensio, gudalburu. Luz Libertad Joven, bizi-kimilari.
Enrique Santamarina, Ikastetxe-Nagusiko irakasle. Leonardo San-
tamarina, Ikastetxe Nagusiko irakasle.

FRANTZIA'n :

José Maria Armengol, irakasle. Francisco Boix, sendatzaile. Marín Gazo, lege-gizon. Félix Gordón Ordás, abere-sendatzaile ta idazle. Jesus Herranz, irakasle. Julio Just, idazle. José Maldonado, lege-gizon. M. Martinez Moreno, lege-gizon. Santos Mata, inkenieru. Arturo Ortega, salgaizko irakasle ta egunkalari. Julio Pérez Barba, idazti-saltzaile. Emilio Reinares, salgaizko irakasle. Angel Subira, gudari. Fernando Valera, idazle. Paris'en.

Luis Abadía, Montauban'en burni-bideetako langile. Emilio Bordonaba, Toulouse'n iostun. Manuel Campomanes, Donibane Lohitzun'en (B.P.) sal-erosle. X. Gambús, Auch'en (Gers) idazle. Ambrosio Garbizu, Baiona'n (B.P.), salerosgo-ordezkarri. Antonio Muñoz, berezibili-zain Tarbes'en (H.P.). Ricardo Orcajo, salerosgo-ordezkarri, Lyon'en. Enrique Pérez, Erriko lanetan langile, Issoire'n (P.-de-D.). Angel R. Martín, irakasle, Ceret (P.O.). Tomás Ros, sendatzaile-lagun, Perpiñan. Guillermo Sarabia, urrutizkin-tekniku, Marsella. Lorenzo Serrano, erlujerua, Grenoble. José Tello, nekazari, Montluçon (Allier). Vicente Tomeo, oletako langile, Ariège. Conrado Val, nekazari, Burdeos. Antonio Moya, zenbakari, Burdeos.

BRETAÑA ANDIAN :

José A. Balbontin, lege-gizon eta idazle. José Bataller, zenbakari.

MARRUEKOS'en :

Enrique Díaz Ruiz, tximistargi-langile. Luis García Vicente, izotz-alaza tekniku. Agustín Gómez y González-Alegre, lege-gizon. Ireneo Gomez de Linares, gudulari. Luis Lison, kimilari. Millán N. Andrés, salerosgo-irakasle. Santiago Otero, irratitekniku. Rogelio Pinero, lantegi-ugazaba. Juan R. Lara, salerosle. Antonio Sánchez Poveda, salerosle.

MEXIKO'n :

Alvaro Alborno Salas, inkenieru. Niceto Alcalá Zamora Castillo, Ikastetxe-Nagusiko irakasle. Santiago Alonso Izaguirre, inkenieru. Joaquin Arderius, idazle. Alfonso Ayensa y Sánchez de León, lege-gizon eta egunkalari. Alfonso Barbeta, inkenieru. Urbano Barnés, sendatzaile. Moisés Barrio Duque, bideetako inkenieru. Luis Cana Vázquez, lege-gizon. Benito Carreté, lantegi-

ugazaba. Manuel Castillo, irakasle. Honorato de Castro, irakasle. Roberto Castrovido, lege-gizon. Clemente Cruzado, egunkalari. Joaquin D'Harcourt, sendatzaile ta ebakuntzalari. José Domínguez Barbero, lege-gizon. Nivardo Donay, lantegi-ugazaba. José Fábrega, sendatzaile. Celestino J. Falco, puskakétari. Eduardo Frápoli, irakasle. José Gil Nostrort, lege-gizon. Bernardo Giner de los Ríos, etxagile. José Giral Pereira, Ikastetxe-Nagusiko irakasle. Ramón González Sicilia, Ikastetxe-Nagusiko irakasle. Mariano Granados, goi-epaikari. Cecilia G. de Guilarte, idazle. Julio Guzmán y Alvarez de Toledo, sendatzaile ta ebakuntzalari. Mateo Hernández Barroso, iakintza-irakasle. Manuel Iñigo, lege-gizon. Mariano Joven, salerosle. Francisco del Llano Encomienda, gudalburu. Tomasa Maorad, Vilatela'ren alarguna. José Martinez Aguilari, irakasle. Santos Martínez Saura, lantegi-ugazaba. Francisco Medina, lege-gizon. Juan Antonio Méndez, sendatzaile. Máximo Meyer, salerosgo-arduradun. Miguel Morayta, sendatzaile. César Ordax AVECILLA, etxe-apaintzaile. Manuel Pérez Jofre, baratari. Rafael de Pina, irakasle. Alfonso Pozas, lege-gizon. Rafael Ramírez, etxagile. Miguel Ranz Iglesias, lantegi-ugazaba. Ramón Ruiz Rebollo, irakasle. Jesus Ruiz del Río, lege-gizon. Arturo Saez de la Calzada, etxagile. Daniel de Tapia Bolívar, idazle. Félix Templado, lege-gizon. Manuel Torres Campaña, diru-etxe-entzulari. Adolfo Vázquez Humasqué, lur-lan-inkenieru. José Virgili Andorra, irakasle ta agitaratzaile.

PUERTO RICO'n :

Alfredo Matilla, irakasle.

URUGAY'en :

José Cancela, sendatzaile. Arturo Cantero, saleroslari. Julio Casabona, abere-sendatzaile. Francisco Castillo, lantegi-ugazaba. Primitivo Garrido, irratitekniku.

VENEZUELA'n :

Julián Larrea, salerosle-ordezkarri. José Maria Llopis, sendatzaile. José Montañés, bultzietako Erri-ordezkarri. José del Rio, sendakilari.

« ERKALAREN ALDEKO EKINTZA ERRIZALEA »ri

« ERKAL BERRIA " itsastea

ERKAL BERRIA'k, AUXE ADIERAZTEN DU, « Erkalaren aldeko Ekintza Errizalea », kin elkartzeko gogoia, alegia, Igikun berriaren atal-egitama ezar dadinean, zer-nola mamitu erabakitekotan, Katalunia'ko ordezkari iatorra bezala gere nortasuna begiraturuz.

ERKAL BERRIA'k onetara lagundu uste du barneko Frankokuku talde guzietan dagoen elkartasun-gogoia, ta egungo egunez bertako kakoek eraginda bear duten buru-iabetasun aundiak arki lezake zalegikeri bage sortzeko dan Igikun ontan politiku-ekintzaren oinarria, erkal-asmorik goranaienak indartu ta iarrai eragiteko.

1.959, gko. Uztailak lena.

ERKALAREN ALDEKO EKINTZA-ERRIZALEAREN IRAKASKIZUN ETA EGITARAU-OINARRIAK

ERKALAREN ALDEKO EKINTZA-ERRIZALEAREN IRAKASKIZUN IZAERA TA ELBURUAK

I

Edotariko españar aurreratu dogmabageak oro bere barnean biltzeko asmotan eta irrikian osotu da Erkaldar Ekintza Errizalea (Acción Republicana Democrática) alegia; ioera banak, noski, baina, Askatasuna, Errizaletasuna, Zuzenbidea ta Aurrerapena oinarri ta erro nagusienetan baiesten batera datoztenak.

Aurreragoko esanaldian mugatuak dauden indar eta ioera guziek, gure ustean, Alderdi edo Igikun bakarra osotu bear dute, iakin eta, berarizko garrantzia duela, uste ta iritzietan lakainduta arkitzen diran erabateko ioera andiak oro bat egiteak, edota bate-ratsu egiteak, errikoi gizarte bateri ekar lezaioken ona, politiku-alderdi antolaketak alik eta kopuru txikienera biurtuaz.

II

Erkaldar Ekintza-Errizalea argi ta garbi, zain-muinez Errepublikan-zalea da. Asmoz ta teoriz, guzizko demokraziari obeki egokitzen zaion iaubidea Erkala dalako bakarrik ez, baizik eta, bizi ere bizi dan España'n, Erkal-iaubideak bakar-bakarrik Franco'tar-aginpidearen makur eta hidegabekeriak garbi ditzakea-lako ta bizibide errikoi iatorra sor dezakealako, España'ko kultura, ekonomi, gizarteko, ta politiku-gara osoa ta berriztea ekar lezakean berrikuntza sakon eta noraezekoa buruturik.

Prankotar-ditaduraren ordeazko korapiloa askatzeko Erregetza ez da, eta ezin diteke izan, prankotarren itzalpean sorturiko ta irauñ-eraziriko irabazi zikin, biurri ta gallaldiak erabat edo zenbait — ditezkean geienak — buru diran oligarkiei onik aterateko bidea baizik.

III

Auxe baiesten dugu biribil eta bipil : Españi'ko liberal-erkaldarren artean dagoen eta legokean zindoena, gorengoena ta iarrituena adierazten duela Erkaldar Ekintza Errizaleak ondorengo ondorez; egia esan, gogoazko ekinaldi ori ez da izan an-emengo utsik bage, urteak barrena : alabaina, XIX'garren mende erditutik aurrera, gure errialdea berrizten diarduen adierazle bero, sutsu ta abertzaleena izan da, eta españar-gizarteko zindoena ta eraginena here oboan bildu du, erakusmeneko bere gizon zuzen eta zorrotzek nabarmendu dutenez.

Alabaina, Erkaldar Ekintza Errizalea sortzean auxe adierazten dugu : españar erkaldar aurrerapenari gogo berria ta indar berria txertatzeko erabaki sendoa, alegia, bizi izan ditugun gertarien argitara lengo makurrak eta utsak zeatz-meatz astertzen iarrita gero, ta batez ere, gure aberriak ezagun izan dituen bi alditako Erkalarrenak eta oraingo Españi'ren eta eguzkipeko errien benetako egoera aintzat arturik.

IV

Erritar arteko guduak sortu ta frankotar-aginpideak arretaz azi-eragin ditu en gorroto biziak zainetatik atera ta gibel-asmoak oro ken ditzakean erri-bake ta batasuna eragin nai genuke, erritarrak berotuaz, gizarteko bake ona ta zina lengora dezaten; ta aburu guzietariko españarren artean elkarrean bizi al izateko giroa sortu, nori berea bere gain utziaz, elkarrekiko begirunez ta elkarizketa baketsuz : baina, elkarrekiko bake orrek ez luke esan nai izango, oraingoan buru ta nagusi eragile bailiran darabilzkiten oligarki-bideetaz autsi-mautsirik, etsi bat egiterik edo antolaketa ezainik, ori españar-erriaren irabazpideak saltzea ta etorkizuneko ekina elkor eta ustel lezakean baikuntza bailizake.

V

Erkaldar, errizale, liberal eta erriak berak bere gain aukeratutako aginpidea oinarrizat arturik, giza-nortasunaren erabateko anditasunarekiko begirunea ontzat aitorturik eta Erri Elkartuek aldarri egin-eskubideak onetsirik, auxe uste dugu, politiku ta ekonomigegitamuan aldaketa sakonak egin bear dirala uste betean gaude, alegia, ta orretarako biderik nagusienak iarrantuan ezaguterazten ditugu.

IAURLARITZA-AGINPIDEAREN EGITAMUA TA LATERRIAREN ESKUBIDEAK

VI

Udala españar politiku-bazkunaren oinarri-kizkin bezela, beraren antxinate oberenari dagokionez. Udalen bere buru-iabetasuna ta udal-ogasun bizibidea.

Ongi mugatu-nortasuneko erriek edo nazionalidadeek elkartuaz eratua da Españi : luzaroan elkarrekin bizi izateak elkarrekiko txibista gogor guzitarikoak sortzean, Españar aberri gorengoagoa ta batzunagoa ekarri du, baina, baita uka-ezina ere, alde guziek osotzen baitute.

Egin ere, izate oni egokierazi bear dio bere egitamua Erkaldar laterri berriak, edestiak eta lutelestiak lurrez ta gizakumez mugatutako eskualdeoi — izen ontaz edo bestez — ta erriek berek demokrazi-bidez ager dezaketen gogoaren arauz, beren buru-iabetasun zabala emango die, zer-naitako agerbideetan nortasun aren erabateko gara ekar lezakeana, ta era berean, elkartasunaren egiazko batasuna sendo lezakeana, guziek berez-bere ta beren gain onarturik, guzien on oberenaren adierazle bailitza.

VII

Guizien autarkietan oinarritutako ordezkari-aginpidea.
Erritar Almenaren nagusigoa.

Eginean eta eraginean idarokitako lege-batzarre-era onartu, ta Lege-emaile ta Bete-erazlearen arteko almenak antolatu, onen benetako erantzukizuna ta aren salatzeo eskubidea baztertu bage, nagusigoa ta iraupena, ots, iaurlaritzen egina ta eragina babes dezaketen.

VIII

Elizaren eta Laterriaren arteko bereiztea. Laikutza, au da, Laterrian bertan, eta laterri-irakaskintzan uzkuartzaren eta iakintzaren ez alde ta ez aurka egotea. Norberak bere barruaren iabetasuna, ta Eliza guziei babesa, dagokien oboan iardun dezaketen. Eliza Katolikuaren geiengoa onartzea, ta Laterriakin tril egiteke oso-osoa iardun dezakean baikuntzak. Asmo ortara Itunbena.

IX

Epailen erabateko askatasun osoa oinarriotan ezarrita : bere inarkunaren ariketan zurrin, zuzen, eskualdeka bage, ezin-ustel izanik, alegia. Zuzen-iaurbidea urrurik erabiltea. Auzibide lasterra ta erreztua. Epailen aurrean españar guzien berdintasuna egin-eginean eta berarizko auzitegi guziak kentzea.

X

Laterri-irakaskintza maila guzietan areagotzea ta gizarte-sail guzietan iakitea edatzea, erriaren lenengo auzia ta korapiloo bailitza. Iakintza era guzietan bere eskuko da, baita asmo ta usteak zabaltzen ere, alde orotan onartutako zilegigo-legeak ezarten dituen mugak besterik bage.

Erri-irakasle ta beste irakasleetan iakite ta trebetasuna ta sari egokiak. Abedegabetasuna berealakoan garbitzea, ikastetxeak azkarki sortuaz, ta ikasle-erroldeak eskatzen duena bete al izateko bear diran irakasleak eratzea. Lenengo mailakoko irakaspenna bearrezkoa, irakasbide ta gizartekiko bideak alde-aurre ta lenbai-len giro onean ezarririk — oraindik ezpaitaude — asmo ori aurrera eraman daiten egin-eginean. Maila guziekiko irakaskintza urrurik. Erdiko ta gorengo mailan egiazki burutu daiteino, ikaszarpak burrustan ugaltzea, egokienak aukeratutakoei norberaren izangoak eta gaitasunak soilik erabakita legez ematekoak.

Berarizko ardura ipini bear izango da tekniku-laneko gizonak adimenez azten eta ezten, eraiki-egitamuak eta ogasun-zabalerak anditu-arauz.

XI

Agintarien eraen-bideak azkar eta gogor garbitu. Erri-kisadunak goratu ta aintzakotzat gaitu, zuzentasunean, iakitean, eskugoan, indarrean ta bidezko sari zuzenean oinarriturik. Kisagoak eratu ta zarberritu, benetako bearkizunei ta españar-Laterri ta gizartearen egitamu ta asmo berriei dagokienez.

OGASUN eta GIZARTEKO-ERRIKETA

XII

Erriaren askatasuna benetan gozartzeko noraezeko bidea gizarte-legeetan datza, ots, gizalde osoaren ongi-aldia atzemateko Laterriaren ogasun-bideak oro erabiliaz, norberari bearrezko ogasun-iabetasuna sendo dakion. «A priori», alde aurre, alegia, ogasunekiko egiarik inola ere erabaki bage, ontan, besteetan bezala, guzion elburuak atzemateko bideei buruz zenbait irizpide gure arteko daitezke, ots, erritar guzien lanak obeki baliatzea, errialdearen ioritasuna areagotzea, ta laterriko etorriaren banaketa bidezkoa, au bait-da gizarte-zuzenbidea deritzan zuzenbidearen ain eta muina : demagogi oro baztertuaz, baina, iakinaren gainean ta burubide kementsuz errikeria ausarta eraginez, gizarteko ogasun-iraulpen iatorra ta azpikoz-gora eman-bearra itzuri-ezina deritzazu Españi'rentzat, itzak berak erabateko esan-nai eregilea duenez.

Prankotar-aginpiderearen ondare bailitza bildu bearra litekean naste-borraste ta zorigaiztoko ausiabartza garbitzeko osabide gogorra ta alde-aurrekoa izan ezik, ahal andiari dagokion ogasun-gizarteko errikeriak, gure ustean, sail nagusiok iarraiki bear izango ditu :

a) Norberaren, taldearen edo maila baten ogasunak laterriaren erabateko on gorengoari menperatzea.

b) Ezta ekonomi-liberal iatorraren mugabageko baltzu-askatasuna, ezta bakoitzaren aleginik kentzerik ere, ezta goitik-bera

ditaturaki agindu ta artezturiko laterri-ekonomirik ere. Erritar bakarren aleginak oro babestu ta bizkortu, beitikgora antolatutako ekonomi-egitamuen barnean eta gorengo aginduen asmoetara; ta beren gain sortutako elkartasunak, ekonomiaren indar bizien ordeazko lirakean eralguntza egokietan ataldirik, — langile ta buru-langile sindikatak, langileen elkartasunak, nekazarien, abel-dunen, garazlarien ta ugazaben elkartasunak, edotariko kopera-tiba-elkartasunen biltzarrak, ekonomi-adar banetako langile-tekniku ta antzetsuena, ta abar, ta abar.

c) Indarra, lenengo gaiak eta abar dakartzien iturri nagusiak gizarte-elkartasunak iabetza osoa izateko eratzea, baita Laterriko ekonomi-lankaien iarduna menpean daukatenenak eta ekonomi-gai nagusien giarra ta muina diratekenak ere.

d) Erriko sailetan, baita erritar bakarren sailetan ere, lantegi ta bestelako irabazpideetan lanean diarduten langile, arduradun, iaurle ta buru-langileek irabazietan erkidegoa.

e) Lur-lege berrikuntza benetakoa, al ditekean eperik laburren-tetan, nekazariei, banaka edo oro batez artuta, lurraren iabetasuna errez dakien, gure abere ta lurren etekin eta emaiak dakartziten gizarte-tekniku-ekonomi maileko saietsak oro alik eta geien oberagotuz ta bidegirotuz.

f) Zerga-eraren berrikuntza, errazago ta zauliago daiten, laterriko zergak zuzen eta bidez banatzeko bidea ta ekonomi-ariketaren eragilea izaki.

g) Lege-bidez ta gizarteko-aroz langileen eskubide nagusiak begiratu — askatasunez elkartzea, lan-opor egiteko eskubidea ta abar — erritarren etxeko ta laneko gertaera txar guzietan bear danez babesturik.

GUDARIEI BURUZ TA ERRI-ARTEKO ERRIKETA

XIII

Erri-arteko bakearen alde agertzen ditugu gure asmoak, ekonomi ta politika-sailetan laterriak laterrien-gaineko antolaketan aurrera eginik, oro bat ditezan. Asmo orren arauz, ta litezkeango gudu-istiluak oro bein betiko ken-erazteko erri-arteko bideak eta neurriak Gizadiak ar ditzan bitartean, gure Laterria babesteko

aina lizakean Legor, Itsaso ta Egurats-Gudaloztea gura izango genuke; kopuruz ta sailez-sail elburu ortara ainako doi-doi ego-kitua, gaiez ta teknikaz, ordea, gertua, eragina ta egin-egina daiten. Gudalozteak, bestalde, alderikeri guzietatik garbitua bear luke izan, gogoz ta muinez Erri-agintarien menpeko kirmen eta zintzo, erriko arazoetan zeatz meatz ez bataren naiz bestearen aldeko edo aurkako, ori bait-du biderik oberena aintzat izateko, ospe izateko ta erri osoaren begirunea ta maitasuna irabazteko. España-erritarren gudari-erakundea beren erritar-eginkizunak asalda ez ditzan eran egingo lizake.

España'k bere buruaren iabetasuna berriz berenganatzen dueneko, Prankotarrek erri-gorentasunaren atzetik eta ixilean izenpetu dituzten errien-arteko itunak oro berriro azter-bearrak dirate.

Zuzen beitez alde izenpetu nai dutenek oiengana :

ARGELIA'n :

M. Gracian Garcia, 2 bis, Sidi-Snoussi (St. Antoine), Oran (Algérie).

ARGENTINA'n :

Rafael Alarcón, Virrey Cevallos, 1033-2° G., Buenos Aires.

BRASIL'en :

Antonio Pico Skoda, ing. Hotel Finacial, Apartado 2310, Bello Horizonte (Minas Geraes).

CUBA'n :

Antonio Ortega, Editorial Carteles, Av. Menocal y Peñalver, Apartado 188, La Habana.

TXILE'n :

Modesto González, Clasificador, 989, Correo Central, Santiago de Chile.

GOI-AMERIKETAKO ERRI-ELKARTUETAN :

José Asensio, 425 West 75 Street, 2 K, New York 19, N.Y. (U.S.A.).

FRANTZIA'n :

Emilio Reinales, Boîte Postale N° 46-06, Paris (6°).

BRETAINA ANDIA'n :

José A. Balbontin, 120 Arthur Court, Queensway, London, W.2.

MARRUEKOS'en :

Millan N. Andrés, Bd de Paris, 145, Casablanca (Maroc).

MEXIKO'n :

Mariano Joven, Venustiano Carranza, 50-1°, Mexico, D.F.

PUERTO RICO'n :

Alfredo Matilla, Universidad de Puerto Rico, Rio Piedras.

URUGUAY'en :

Primitivo Garrido, Casilla Correos 5004, Sucursal N° 1, Montevideo.

VENEZUELA'n :

Julian Larrea, Apartado 2369, Caracas.